



OINARRI ARAUTZAILEAK, “BERROREKARAKO ETA EKITATERAKO LURRALDE-PROIEKTU BERRIAK. LEHENTASUNEZKO ARRETAKO KOLEKTIBOAK” PROGRAMAREN BARRUAN ENPLEGU-FORMAKUNTZA PROIEKTUAK GAUZATUKO DITUZTEN ERAKUNDEAK HAUTATZEKO.

0. Atarikoa

Bat etorritz Enpleguari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikularekin, Espainiako Konstituzioarekin, autonomia-estatutuekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek, enplegu-politika aktiboen zerbitzuak eta programak gauzatuz, lankidetzaren mekanismo egokiak ezarri ahal izango dituzte toki-erakundeekin.

Oraingo honetan ezarritako esparrua da LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako dirulaguntzen deialdia, zerbitzu horretako zuzendari nagusiaren 2023ko irailaren 6ko erabaki bidez onartua, zeinaren bidez argitaratzen baita “**Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak**” programa finantzatzeko laguntzen deialdia.

Basauriko Udalak deialdian parte hartu nahi du, bere ekarpena egiteko 45 urtetik gorako Basauriko langabeen edo zaurgarritasun-egoeran edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen laneratzeari, enplegarritasuna hobetu eta lan-merkatuan sartzea erraztuko duten banakako ibilbideen bidez, aintzat harturik deialdian araututako oinarriko esparrua.

Horretarako, irailaren 21ean, dagokion eskaera egin du LANBIDEn, dirulaguntza eskuratzeko.

Deialdiak aukera ematen du ekintzak egiteko zuzenean edo irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez. Honela dio 4.1 artikulua:

“Programan parte hartuko duten pertsonen kontratazioak egingo dituzte 3. artikuluan aipatutako erakundeek, haien mendeko erakundeak barne, bai zuzenean bai zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen-laneratzen aritzen diren Euskadiko hirugarren sektore sozialeko (Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua) irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez, horiekin hitzarmena eginez edo proiektuen gauzatzea kontratu bidez adjudikatuta.

Erakunde onuradunak azpikontratatu ahal izango du, osorik edo zati batean, artikuluan honen 2.b) idatz-zatian aurreikusitako ekintzen % 100 arte, kontuan izanik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 29. artikulua eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 68. artikulua.”

Hori horrela, Basauriko Udalak bere gain hartuko ditu LANBIDEk onartutako programen orientazio-, jarraipen-, formakuntza- eta kontratazio-ekintzak, zeharka, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen dituzten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez. Erakunde horiek hautatzeko, Udalak oinarri hauek ezartzen ditu, uste baitu modurik eraginkorrena dela lehentasunezko arretako kolektiboak enplegarritasunaren arloan dituzten helburuak betetzeko.

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo batzuk hautatzeko prozedura (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea). Erakunde horiek gauzatuko dituzte Basauriko Udalak aurkeztu eta LANBIDEk “Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak” deialdiaren baitan onartutako programak.



2. Dirulaguntzaren helburua

LANBIDEren deialdiaren arabera, dirulaguntzaren xede diren programen bidez, arreta pertsonalizatua eskaini nahi zaie 45 urtetik gorako langabeei eta zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsoneri, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko irailaren 6ko erabakian aipatu moduan, BANAKAKO IBILBIDEEN bidez. Ibilbide horietan, indartu egingo dira pertsona horien kualifikazioa, gaitasun pertsonalak eta motibazioa, aldi baterako enplegu-esperientzia baten, formakuntza espezifikoko baten eta orientazio eta akonpainamendu individualizatu baten bitartez.

Udalak hautatutako erakundeekin konpromisoa hartuko du baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aldeko ebazpena badago, ebazpen horrek ezartzen dituen terminoetan eta garrantzian.

Dirulaguntzen xedea izango da eskatutako proiektuak gauzatzea. Honako hauek dira proiektu horiek:

1. PROIEKTUA: “Agente zibikoak”

Dirulaguntza-lerroa: Lehenetasuneko arretako kolektiboentzako enplegu-formakuntza proiektuak.

Aurrekontu-partida: 52.2413.48198

Gehieneko zenbatekoa: 223.852,48 €

Lanpostu-kopurua: 12

2. PROIEKTUA: “Patio irekiak”

Dirulaguntza-lerroa: Kolektibo zaurgarrientzako enplegu-formakuntza proiektuak.

Aurrekontu-partida: 52.2413.48198

Gehieneko zenbatekoa: 232.219,95 €

Lanpostu-kopurua: 12

3. PROIEKTUA: “Administrazio elektronikoa eta digitalizazioa”

Dirulaguntza-lerroa: Kolektibo zaurgarrientzako enplegu-formakuntza proiektuak.

Aurrekontu-partida: 52.2413.48198

Gehieneko zenbatekoa: 173.185,62 €

Lanpostu-kopurua: 9

LANBIDEri eskatutako proiektuei buruzko informazioa erakundeen esku egongo da Enplegu Sailaren bulegoan (Bidearte 10).

3. Erakunde onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta izena emanda badaude Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea), LANBIDEren ebazpenak “Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehenetasuneko arretako kolektiboak.» programarako ezartzen

duenaren arabera. Erakundeek gai izan behar dute gauzatzeko aurkeztuko diren proiektuko zenbait ekintza edo proiektuetako ekintza guztiak: kontratazioa, formakuntza, orientazioa eta akonpainamendu indibiduala.

4. Hirugarrenak azpikontratatzea

LANBIDEn dirulaguntzaren oinarrien arabera, debekatuta dago azpikontratatzea.

5. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuen baldintzak

1. Proiektuak amaituko dira 2024ko irailaren 30a baino lehen.
2. Proiektu bakoitzak 8-12 laguneko taldea izango du hasiera batean.
3. Lan-kontratazioa, baldintza hauekin:
 - Kontratuak ezin izango dira egin enplegua eskaintzen duen erakundearen ohiko jarduerak egiteko edo haren langileak ordeztuko.
 - Gauzatuko diren proiektuak LANBIDEk lehenesten dituen jardun-esparruetakoak izango dira.
 - Kontratuak izango dira Lan-aukerak eta laneratzea hobetzeko (505 eredu), 6 hilabeterako eta lanaldi partzialekoak (lanaldiaren % 75).
4. Oinarrizko gaitasunetan trebatzeko zeharkako formakuntza presentzialeko talde-ekintzak, proiektuan jasotako lan-jarduera hobeto garatzeko, gutxienez 100 ordukoak eta gehienez 200 ordukoak.
5. Proiektuan zehar laguntza-prozesuak errazteko lan-orientazioko banako ekintzak, horien barruan sartu ahalko direlarik: eskumenen balantzea, lan-merkatuaren informazioa, irteera profesionalak, helburuen planifikazioa eta enplegua bilatzeko gaitasunak, gutxienez 6 orduz. Ekintza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laneratze informatio-sistematan orientazio-erakunde gisa alta emanda dauden erakundeek gauzatu beharko dituzte.

Taldekako eta banakako ekintza hauek kontratu-denboran egingo dira, edo, gehienez ere, kontratazioa hasi baino bi hilabete lehenago, eta lan-jardueratik kanpo beti.

Lanpostuekin lotutako prestakuntza kontratazioen aurretik eman beharko da.

6. Programetan parte hartzeko baldintzak

1. Langabeak, LANBIDEn enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daudenak, Basaurin bizi direnak eta bi kolektibo hauetako bateko kide direnak:
 - 45 urtetik gorako pertsonak.
 - Zaurgarritasun-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan daudenak. Zaurgarritasun-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonatzat hartuko dira, besteak beste:
 - a. DSBE edo BGE titularrak edo onuradunak.
 - b. Iraupen luzeko langabeak: hau da, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daudenak hautagaitza bidali aurreko 540 egunetan, betiere epe horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.
 - c. Kualifikazio txikiko langabeak: enplegu-eskaeran 23. mailatik (DBH edo baliokidea) gorakoa ez den Formakuntza Maila adierazi duten pertsonak.
 - d. Hartzaileak izan daitezke, baldin eta ez badute parte hartu «Oreka eta ekitatea lortzeko lurralde-proiektu berriak. Kolektibo kalteberak» inbertsioaren 2022-2023 deialdian diruz lagundutako proiektu batean ere, salbu eta behar adina parte-hartzaile ez egoteak proiektua abian jartzea eragozten badu; kasu horretan, pertsona horien parte-hartze justifikatua baimenduko da. Ez dira hartuko deialdi

honen babesean eginiko ekintzen eta zerbitzuen hartzailetzat lan-merkatu nazionalera sartzeko aukerarik ez duten pertsonak.

2. Pertsonak hautatzeko prozedurak aintzat hartuko du proiektu hauek finantzatzeko LANBIDEREen deialdia.

7. Dirulaguntzen zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak

1. 629.258,06 € izango da hautatutako proiektuak gauzatzeko eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa.
2. Gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- a. Kontratututako proiektuan parte hartzen duten pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza honen bidez, kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak ordainduko dira, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta erakunde kontratatzailearen konturako Gizarte Segurantzako kuota barne.

Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko kontzeptu honengatiko gastuaren benetako kostua, eta akreditatu egin beharko da justifikazioa aurkezteko unean, aintzat harturik LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2023ko irailaren 6ko ebazpen bidez onartutako deialdiaren 12.1 c) artikulua. Ebazpen horren bidez, argitaratzen da "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak" programa finantzatzeko laguntzen deialdia.

- b. Formakuntza, orientazio eta akonpainamendu jarduerak. Zehazki, gastu hauek:

Formakuntza eta orientazio jarduerak, aintzat harturik LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2023ko irailaren 6ko ebazpen bidez onartutako deialdiaren 4.2.c) artikulua.

Proiektua garatzeko behar diren ezagutzak eta gaitasunak emanez parte-hartzaileen taldeari, formakuntza emateaz eta lan-eginkizunak ikuskatzeaz arduratuko diren langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Orientazio eta akonpainamendu lanak, eta proiektuaren koordinazio- eta jarraipen-lanak, egingo dituzten langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Zeregin horiei zuzenean lotutako beste kostu batzuk, zeregin horietan emandako denboraren proportzioan: aseguruak, materiala, lokalaren errentamendua, kontziliazio-neurriak, etab.

Likidazioak ez du gaindituko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Dirulaguntzaren likidazioa egiteko pertsona bakoitzeko, sei hilabeteko lan-kontratu jarraitua beharko da, eta bete egin beharko dira aipatutako deialdiaren 4.2.c) artikuluan aipatutako gutxieneko orientazio- eta formakuntza-orduak.

Kontratua aldez aurretik azkenduz gero, modu proportzionalean egingo da dirulaguntzaren likidazioa, benetan lan egindako denboraren arabera, deialdiaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, ez da eskatuko proportzionalki betetzea pertsona bakoitzarentzat aurreikusitako gutxieneko formakuntza- eta orientazio-arauak.

Diruz lagundutako lan-kontratua diruz lagundutako epearen aurretik amaituz gero, horren berri eman beharko zaie LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Basauriko Udalari, kontratua azkendu eta 7 eguneko epean, eta emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da, dagokion prozedura izapidetuta, salbu eta iraungitzea gertatu bada probaldia ez gainditzeagatik, borondatez uzteagatik, bidezko kaleratzeagatik edo kontratutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasunagatik (kasu horretan, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, lan-kontratuaren benetako iraupenaren arabera).

Diruz lagun daitezkeen gastuen eskurapen kostuak ez du gaindituko inola ere merkatuko balioa. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak bere gain hartuko du oso-osorik dirulaguntzaren zenbatekoaren eta diruz lagun daitezkeen gastuen arteko edozein alde.

Programa amaitzean soberan gelditutako eta dirulaguntzaren kargura finantzatutako materialak Udalaren esku geratuko dira.

8. Emakida-erregimena

Emakida egingo da konkurrentzia-erregimenean, eta proposamen onuragarrienaren sistema erabiliko da, puntukako modalitatean, behar bezala aurkeztutako proposamen bakoitza baloratuz aurretik ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Berariaz eta bereiz baloratuko da behar bezala aurkeztutako proposamen bakoitza, gehienez ere 100 puntuko puntuazioarekin, irizpide hauen arabera:

- Proposamen tekniko dirulaguntzaren helburuetara egokitzea: balorazioaren % 50 (50 puntu).
- Erakundeak erabilitako baliabide materialak eta pertsonalak: balorazioaren % 20 (20 puntu).
- Beste administrazio publiko batzuentzat eginiko antzeko programen zerrenda: balorazioaren % 10era arte (10 puntu).
- Proposamen ekonomiko onuragarriena: balorazioaren % 20 (20 puntu). Proposamen ekonomiko onuragarriena honela baloratuko da:

Eskaintza ekonomikoenak jasoko du gehieneko puntuazioa, eta ondorengo formula erabiliko da gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko: eskaintza ekonomiko baxuena baloratzen den proposamenaz zatitzea eta zatidura irizpideari aplikagarriak zaizkion puntuoen guztizkoaz biderkatzea. Hots,

Pbx20/Pe

Pb: proposamen ekonomiko baxuena.

Pe: baloratzen den eskatzailearen proposamena.

Nolanahi ere, proposamen ekonomikoak errespetatu egingo ditu erreferentziako Hitzarmen Kolektiboan lanbide-kategoriarako ezarritako soldatak.

Soil-soilik hautatuko da puntuaziorik handiena duen proposamena, eta programa gauzatzeko hitzarmena sinatuko da harekin, LANBIDEren baimenez.

Gainerako proposamenak ordenatuko dira beheranzko balorazio-irizpidearen arabera, hautatutako proposamena ordeztu ahal izateko, baldin eta azken horrek, edozein arrazoi dela medio, ezin badu proiektua garatu.

	Puntuak
DIRULAGUNTZAREN HELBURUETARA EGOKITZEA	50
Parte-hartzaileak behin betiko hautatzeko prozedura.	5
Proiektuaren hartzailea den kolektiboaren ezaugarrietan oinarritutako formakuntza-ibilbidearen diseinua. Helburu orokorrak, helburu espezifikoak, baliabideak eta kronograma: 5 puntu. Aplikatu beharreko metodologia didaktikoa deskribatzen du: 4 puntu. Aurretik planteatutako lorpen eta helburuen ebaluazio-plan bat garatzen du: 4 puntu. Lan-ingurunean trebetasun sozialak eta zeharkako trebetasunak indartzeko edukiak proposatzen ditu: 2 puntu.	15
Parte-hartzaileen lan-orientaziorako metodologia: 5 puntu. Orientazio-lana laguntzeko tresnen zerranda aipatzen du (ikus-entzunezkoak, Internet estekak, argitalpenak, eskuliburuak, etab.): 5 puntu.	10
Lanpostuen deskribapena: 3 puntu. Lanpostuaren funtsezko zereginak definitzen ditu: 3 puntu. Lan-jarduera gainbegiratzeko plan bat proposatzen du: 3 puntu. Udal-langileekiko koordinazio-plan bat planteatzen du: 3 puntu. Lan-arriskuen ebaluaziorako plan bat proposatzen du: 3 puntu.	15
Proiektuko parte-hartzaileen laneratzea eta enplegu-akonpainamenduari lotutako beste ekintza batzuk: Lan-merkatuaren analisi bat aurkezten du, behin proiektua garatuta parte-hartzaileek erabili ahal izango dutena: 5 puntu.	5
ERAKUNDEAK ERABILITAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA-BALIABIDEAK	20
Programari atxikitako pertsonen kualifikazioa eta esperientzia	10
Proiektua gauzatzeko jarritako materialak eta instalazioak	10
EGINIKO ANTZEKO PROGRAMAK	10
Eginiko enplegu-formakuntza planak: 1 eta 3 artean	5
3tik gora	5

9. Eskabideak aurkeztea.

1. Parte hartzeko eskabideak, gehienez ere, zortzi (8) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
2. Interesa duten erakundeen eskaerak aurkeztuko dira Basauriko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoetan, ohiko ordutegietan, baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako edozein lekutan ere.

10. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Dirulaguntza-eskaera, deialdi honen I. eranskineko eredia erabilia.
2. Beste administrazio, erakunde edo organismo publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo jasotako dirulaguntzen zinpeko aitortpena.

3. Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.
4. Erakundearen Identifikazio Fiskaleko txartelaren kopia.
5. Dagokion erregistroan inskribatuta egotea egiaztatzen duen agiria eta erakundearen estatutuen edo, hala badagokio, eraketa-eskrituren kopia.
6. Erakundearen ordezkariaren ahalordearen eta NANaren kopia.
7. Dirulaguntzaren xede den proiektuaren edo proiektuen memoria teknikoa. Memoriak jasoko du deialdiaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta kalitate teknikoa baloratzeko behar den informazioa.
 - a. Parte-hartzaileak hautatzeko prozedura.
 - b. Programaren edo programen helburu orokorrak, eta formakuntzaren, kontratazioaren eta banakako akonpainamendu- eta orientazio-prozesuaren helburu espezifikoak.
 - c. Formakuntzaren eta orientazio soziolaboralaren edukiak.
 - d. Lanpostuen, zereginen, kategoriaren eta jarraipenaren deskribapena.
 - e. Plangintza eta kronograma.
 - f. Lan-arriskuen ebaluazioa.
 - g. Programaren edo programen jarraipena eta ebaluazioa.
 - h. Udalarekin koordinatzeko metodologia.
 - i. Erakundeak erabilitako baliabide materialak eta giza-baliabideak: Koordinazioaz, formakuntzaz eta jarraipena egiteaz arduratzen diren pertsonen curriculumak, baita erakundeak garatutako antzeko programen zerrenda ere.
8. Memoria ekonomikoa, zehatz-mehatz jasoko dituen proiektua gauzatzearen gastuen aurreikuspenak, baita bideragarritasuna ere.
9. Banku-erakundeak zigitatutako hartzekodun-fitxa.
10. Dirulaguntza jasotzeko deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskineko ereduaren arabera.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdiko eta oinarrietako baldintzak, 10 eguneko epea emango zaio interesdunari hura zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

11. Dirulaguntzaren publizitatea

Deialdi honetako laguntzak batera finantzatzen dituzte Basauriko Udalak eta LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuen bidez. Hori horrela, deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduerak, baita jarduera horiei eta "Berrorekarako eta ekitaterrako lurralde-proiektu berrien programa. Lehentasunezko arretako kolektiboak" programari buruz eginiko publizitate guztia ere, behar bezala identifikatuko dira, informazioaren, komunikazioaren eta publizitatearen arloan ezartzen dituzten betebeharrak, eta kontuan hartuko dira ere LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Basauriko Udalak horretarako emandako jarraibideak.

Alde horretatik, dirulaguntzak jasoko dituzten erakundeek finantzaketa horren jatorria aipatu beharko dute beren publizitatean, eta, hala dagokionean, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren identifikazio grafikoarekin. Hori egingo da bereziki ekintzak eta haien emaitzak sustatzen dituztenean, informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua emanez hartzaileei, hedabideak eta publikoa barne.

12.- Instrukzio- eta ebazpen-organoak

LANBIDEk onartutako proiektuen eskaerei buruzko ebazpenak emango dira soilik. Onarpen hori jaso ez duten proiektuetarako dirulaguntza-eskaerei dagokienez, onartu ez direla jakinaraziko zaie, eta automatikoki geldituko dira deialditik kanpo, erakunde eskatzaileek inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Oro har, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Enplegu Sailak, dirulaguntzaren kudeatzaileak, sor daitezkeen gorabeherak ebatziko ditu, eta beharrezko egiaztapenak eta eskabideen balorazioa egingo ditu, ebaluazioaren emaitza emango duen txostena iritsi arte.

Kide anitzeko organoak, gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeko kide guztiek osatua, ikusirik espedientea eta Kudeaketa Arloaren txostena, emakida-proposamena egingo dio Alkatetzari, azken hori izanik ebazteko organo eskuduna, eta hor adieraziko ditu dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak, baita proposamen horren arrazoiak ere.

Ebazpen-proposamenak ez dio inolako eskubiderik emango proposatutako onuradunari administrazioaren aurrean, dirulaguntza emateko ebazpena iritsi arte.

Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epea zenbatuko da deialdia BAOn argitaratzen denetik aurrera, ondorioak geroko data batera atzeratzen dituztenean izan ezik. Ebazpena jakinaraziko da administrazio-prozedura erkidearen araudiaren arabera, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, ematen denetik kontatzen hasita, eta legez zer errekurtsio aurkez daitezkeen jakinaraziko da.

Ebazpena emateko epea amaitzen bada jakinarazpenik egin gabe, interesdunek ulertuko dute eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez, eta egoki irizitako administrazio-errekurtsioak edo judizialak jarri ahal izango dituzte.

13. Ordaintzeko modua

Deialdi honetako dirulaguntza hiru zatitan ordainduko da:

1. Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren % 30, Basauriko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu ondoren, dagokion ereduaren arabera.
2. Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren % 40, programaren hasiera akreditatu ondoren, kontratuak eta kontratatutako pertsonen Gizarte Segurantzako alta aurkeztuta.
3. Hirugarren ordainketa, gainerako %30ekoa, memoria aurkeztu ondoren, hilabeteko epean, programa amaitu eta eginiko jarduerak behar bezala justifikatzen direnetik kontatzen hasita.

14. Dirulaguntzen justifikazioa

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak hilabeteko epea izango du, kontratazioak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, diruz lagundutako jarduerak eta eginiko gastuak bete izanaren justifikazioa aurkezteko, moduluen erregimenaren bidez, kontuan izanik uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. eta 76etik 79era bitarteko artikuluetan jasotakoa.

Justifikazio horretan, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztuko du:

- a) Justifikazio-memoria bat, gutxienez honako hauek jasoko dituen:

– Egindako jardueren eta lortutako emaitzen xehetasuna.



- Komunitatearentzat interesgarria izan daitekeen jardueraren deskribapena.
- Hasieran aurreikusitako helburuen ebaluazioa eta betetze-maila.
- b) Lanbidek emandako fitxak:
 - Laborpena, parte-hartzaileka eta egindako jardueraka.
 - Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako dokumentua, prestakuntza-zerbitzuak jaso dituela justifikatzen duena eta emandako orduen kopurua jasotzen duena.
 - Proiektua indarrean egon den bitartean begiralearen/arduradunaren zereginak eta orientazioko eta laguntzako zereginak garatu dituzten pertsonen zerrenda (5.3.b artikulua).
 - Parte-hartzaileen nahiak betetzen diren jakiteko inkesta.
- c) Erakunde onuradunaren idazkariak/kontu-hartzaileak emandako gastuaren ziurtagiria, toki-erakundeen edo sektore publikoko erakundeen kasuan. Gainerako erakundeek egindako gastua eta kontzeptu horrengatik egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen xehetasun bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Azpikontratututako jardueren xehetasun bat

Erakunde onuradunek bost urtez gorde beharko dituzte jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke, kudeaketa-agintaritzak onuradunari azken ordainketa egiten dion urteko abenduaren 31tik aurrera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 82.1 artikulua araber.

Jasotako dirulaguntzak ez badira justifikatzen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren, Garapen Araudiaren eta Udal Ordenantzaren arabera, abian jarriko dira dagozkion itzulketa- eta zehapen-prozedurak.

15. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oro har, erakunde onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testua), berariaz deialdi honetan ezarritakoak eta, bereziki, honako hauek:

1. Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskaera aurkeztea LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta haren kopia, Basauriko Udalean.
2. LANBIDEri jakinaraztea kontratuen hasiera, Basauriko Udalari kopia helaraziz, hamabost egun balioduneko epean, kontratatutako langabetu-kopurua adierazita.
3. Laguntza emateko eta baliatzeko baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita jarduera egin dela ere. Horretarako, "Jarduera-jakinarazpen" bat aurkeztuko dute onuradunek hileroko, labur jasoko dituen eginiko jarduerak eta hilabete bakoitzeko gorabeherak, baita erakundearen gastua xehatuko duen egoera-orri bat ere.
4. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea kontratuaren amaiera, Basauriko Udalari kopia helarazita, 11. artikuluan adierazitako moduan.
5. Basauriko Udalari jakinaraztea helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publikok, estatukoak zein nazioartekoak, emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitza saihesteko.



6. Basauriko Udalarari jakinarazi ondoren, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea laguntza ematean kontuan hartu den edozein zirkunstantziaren aldaketa, objektiboa zein subjektiboa.
-

7. EAEko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zehapen-prozedurak jakinaraztea.
8. Men egitea Basauriko Udalaren egiaztapen-zereginari, baita beste erakunde hauenari ere, hala dagokionean: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Europako Erkidegoetako Batzordea eta Kontu Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), Auditoretzako Bulego Nazionala eta Europako Fiskaltza.
9. Era berean, men egitea Berreraikitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipen, kontrol eta ebaluazioari, eta Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismorako Europar Batasunaren barneko araudian ezarritako informazio eta publizitate, kontrol, egiaztapen, jarraipen, ebaluazio eta gainerako betebeharrak espezifikoei, horiek aplikatzea nahitaezkoa denean.
10. "Kalte esanguratsurik ez eragitea" (*do no significant harm-DNSH*) printzipioa eta etiketatutako klimatikoa eta digitala guztiz betetzen direla bermatzea, eta horretarako egiaztapen-mekanismoak eta neurri zuzentzaileak aurreikustea.
11. Jasotako dirulaguntza erabiltzean, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazkak saihesteko neurriak hartzea.
12. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta kultura- edo jatorri-aniztasunaren arloko betebeharrak:
 - Probak edo elkarrizketak egitean eta lanpostuetarako pertsonak hautatzean, emakumeen eta gizonen arteko tratua- edo aukera-berdintasuna bermatzea.
 - Hautagaiak hautatzeko erabakietan, gutxienez emakume batek parte hartu beharko du, ezinezkoa denean izan ezik (justifikatu egin beharko da).
 - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntza ez-sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak sustatuko dituzte.
 - Era berean, tratua-berdintasunaren eta jatorriagatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatuko da, eta dokumentazioak, publizitateak, irudiek edo materialek sustatu egingo dituzte berdintasunaren, presentzia orekatuaren eta aniztasunaren balioak.

16. Errekurtsuak

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, aurka egin nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok Alkate-Udalburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daitezke zuzenean, dagokion Bizkaiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

17. Konfidentzialtasun-klausula

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak sekretu profesionalpean gordeko ditu datu pertsonalak, baita Basauriko Udalarekin dituen harremanak amaitu ondoren ere, eta behar diren neurri teknikoak eta



antolakuntzakoak hartuko ditu, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko, Legean ezarritako baldintzen arabera.

Era berean, datuak erabiliko dira soil-soilik kontratatutako zerbitzuaren helburu zehatza betetzeko, eta sinatzen duen enpresarena izango da informazioa gaizki erabiltzearen erantzukizun nagusia. Enpresa sinatzailea izango da klausula hau ez betetzeagatik sortutako kalte-galeren erantzulea, Datuak Babesteko Agentziak ezar dezakeen edozein zehapenen kopurua barne.

Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua arabera, interesdunaren baimenik gabe eman ahalko zaizkio datu pertsonalak Estatuko Administrazioako Kontuhartzaitza Nagusiari.